



Wikidata edonork
kontsulta eta edita
dezakeen datu-ba-
se eleaniztun eta
askea da. Hizkuntza
guztietako Wikipedi-

Informazioa modu egituratuan gordetzen da Wikidatan. Hiri bati buruz, kokapenaren koordinatuak gorde ohi dira, izandako alkateen izenen zerrenda, datu demografikoak, etab. Gladys del Estal-i buruz, adibidez, euskal ekintzaile ekologista zela esaten da, gizakia, emakumea, informatikaria, etab. Bere argazki pare bat ere gordetzen dira. Igor Leturiak “Elhuyar” aldizkarian argitaratutako “Wikidata, ezagutzarako datu-base libre kolaboratiboa” artikuluan oso ondo deskribatzen da haren egitura.

Horrek izugarrizko boterea ematen dio hura kontsultatzen duenari, segundo gutxitan informazio pila lor dezakeelako. Demagun Wikidatan zenbat emakume informatikari dauden jakin nahi dugula. Edo Gipuzkoako udaletxeen argazkiak deskargatu nahi ditugula, edo 1.000 metrotik gorako Nafarroako mendiak. Ba al dakizu “Egunean Behin” jokorako galdera asko Wikidatatik sortzen dituztela?

Wikidata ezagutzen hasteko, <https://wikidata.org> webgunean sartzea proposatzen dizugu. Bilaketa egiteko goian eskuinaldean dagoen leihotxoan zure herriaren izena idatz dezakezu eta nola deskribatuta dagoen ikusi. Ondoren, bilatu pertsonaia ezagunen bat (Maialen Lujanbio), liburu bat ("Zergatik panpox")... Oso ezagunak diren elementuak badaude Wikidatan. Hutsuneren bat aurkitzen baduzu eta komunitatearentzat interesa duela uste baduzu, elementua sor dezakezu. Webgunean bertan laguntzarako tutorialak aurkituko dituzu. Aukera paregabea dugu Wikidatan ekarpenak egiteko.

Wikidatan kontsulta konplexuak egin daitezke SPARQL lengoia erabiliz. Kontsulta batzuk ikusteko, *<https://query.wikidata.org>* webgunean sartu eta “Adibideak” botoia sakatzear proposatzen dizugu. “Katuak” aukeratzaren baduzu, adibidez, Wikidatan gordeta dauden katuen zerrenda lortzeko kontsulta agertuko zaizu. Ezkerreko menuko (i) sakatuz, kontsulta modu bisualean erakusten da, eta botoi urdina sakatuz, kontsulta exekutatu eta emaitza agertzen da.

Hamar urte beteko ditu Wikidatak 2022ko urriaren 29an. Munduko herrialde desberdinetako wikilarien elkartek ospakizunak antolatzen dabiltza. Gurean hitzaldia eta tailerra antolatu ditugu Donostiako Informatika Fakultatean, Euskal Wikilarien Elkarteko kideekin batera. Urriaren 26an izango da, 15.30-17.00 artean. Ikasi nahi duzu? Zatoz! •

[illegible]